



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2012ko azaroaren 21a

99. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

A SAILA:

**Foru lege proiektuak:**

—Foru Lege proiektua, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzkoa. Osoko zuzenketak (2. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **Foru Lege proiektua, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzkoa.**

### **OSOKO ZUZENKETAK**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuari aurkezturiko osoko zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen. Proiektu hori 2012ko azaroaren 5eko 89. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko azaroaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **1. ZUZENKETA**

#### **NAFARROA BAI**

##### **PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko 2013ko ekitaldirako Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketa. Proiektua gobernuari itzul dakion proposatzen da.

Zioak: Sistema fiskala pieza funtsezkoa da, gizarte osoaren grinak, nahiak eta helburuak gauzatzeko mekanismoak ezartzen baititu. Urte askotan, espekulazio-burbuilak –sektore publikoak ere elikatu du– distortsioa eragin du aipatutako bi elementu horien arteko harremanean, hau da, helburuen eta horiek iristeko tresnen arteko harremanean. Ahultzen joan zen, horrela, sistema fiskalaren oinarri estrukturala, eta jatorri aldakorreko eta etorkizun duda-mudakoa zuten diru-sarreraren alde egin zen. Jokabide populista eta engainagarri horren ondorioak gaur egungo krisiaren hasieratik bertatik ikusi ziren: diru-sarrera publikoak gainbehera etorri ziren, bereziki okerren diseinatutako tributu-figuren kasuan edo, denboraren poderioz, jatorrizko zentzua galdutako kasuan. Diru-sarrearen erortze horrek eta oreka fiskala lortzeko obsesio gaiztoak murrizketa drastikoak ekarri dituzte prestazio sozialen sisteman, hau da, Ongizatearen Estatua deitu ohi zaionaren ezaugarri diren

prestazioetan. Murrizketa horiek erabat erregresiboak eta asimetrikoak dira; izan ere, gizatalde behartsuenetan kontzentratzen dira, eta, paradokiko, beren zergekin gizartearen egiturari eusten dieten taldeetan, zeinen errentak, gehienbat, soldata bidezkoak baitira. Egoerak iritsi du halako puntu bat non sektore publikoa berabihurtu den, muturreko austeritate-politika dela-eta, atzeraldi ekonomikoaren eragile aktibo. Egoerak, modu horretan, hobetu beharrean, justu kontrakoa egiten du: larritzen jarraitzen du. Eta desberdintasunak areagotu egiten dira, eta haustura soziala, handitu.

Premiazkoa da, beraz, iraganeko akatsak konpondu, eta sistema fiskal eraginkor eta ekitatibo bat taxutzea, sektore publikoari aukera emanen diona bera izateko krisitik ateratzeko bidea markatuko duena, pobretze ekonomikoa alde batera utzita. Azken garaiotan oso erabilia izan den esaldi bat parafraseatuz, sektore publikoa gaur, Nafarroan, problemaren parte da, eta lortu behar dena da konponbidearen parte bihurtzea. Egia esateko, gertakarien indarrak Nafarroako Gobernuazken urtean behartu du gauza batzuk zuzentzera; zuzenketa epelak izan dira, elkarren artean ongi josi gabeak, eta sistema fiskalaren problemei ez dietenak zuzenean eraso egiten. Zuzenketa horiek, gainera, ez dute abiapuntutzat haien beharrari buruzko Gobernuaren konbentzimendua edo politika berekien diseinua, baizik eta Alderdi Popularrak estatuan alde aurretik hartuak dituen neurrien transposizioa besterik ez dira, zenbait aldaera anekdotiko gorabehera.

Gaur egun, figura tributarioak beteta ditugu adabakiz, inkoherentziaz, eta denboran zehar gainjartzen joan diren onura fiskalez; onura fiskal horiek jartzean, gainera, ez da kostuaren eta eraginkortasunaren arteko harremanaren azterketa zorrotzik egin, ezta horien indar faktikoari berari buruzko halakorik ere. Horren ondorioz, gardenta-

sunak eta ikusgaitasuna galtzen da, eta, bereziki, ekitatea eta gaitasun birbanatzailea.

Foru lege proiektu honek ere ez dio problema-  
ren muinari heltzen, eta, beraz, ezin du konponbi-  
de eraginkorrik eskaini. Proiektuak planteatzen du,  
gainera, zioen azalpenean dioenez, "aurrekontuen  
austeritatea hazkunde eta garapen ekonomikoa  
sustatzeko neurriekin bateratzea". Bada, bigarren  
arloan horretan politika sinesgarriak ez izateak (ez  
lege proiektu honetan, ez aurrekontuenetan) izu-  
garri zailtzen du –ez esateagatik ezinezkoa egiten  
duela– lehenbiziko arloa; gutxienez, aurrekontuen  
austeritatea ulertzen badugu defizit publikoaren  
eta zorpetze mailaren gutxitze gisa Laburbilduz,  
egoera ekonomikoaren larritasuna gaizki lotzen da  
problemaren erroari heltzen ez dioten neurri epel  
batzuekin.

Horri gehitu behar zaio ezen, beste behin ere,  
Nafarroako Gobernuaren proposamen fiskala aur-  
kezten dela Aurrekontuen Legearen proiektuaren  
eranskin edo gehigarri modura, eta horrek ez du  
biderik ematen gaiak eskatzen duen eztabaida  
lasaia egiteko; bestalde, abiapuntu hartzen du  
defizit- eta zorpetze-helburu batzuen onarpen akri-  
tikoa, eta ez du, aldiz, Nafarroak arlo horretan  
duen gaitasuna eta osatzen duen espazio fiskala  
baliarazten, ezta adierazten ere beharrezkoa dela  
Nafarroak ahots propioarekin hitz egitea etorkizu-  
nerako garrantzitsuak diren erabakiak hartzen  
diren foroetan.

Laburbilduz, foru lege proiektuak ez dio eran-  
tzunik eskaintzen Nafarroak bizi duen egoera eko-  
nomiko eta sozial larriari, eta ez du biderik ematen  
gizarte gisa aurre egin beharreko zaizkigun proble-  
ma estugarrienei aurre egiteko.

Horregatik guztiagatik, Nafarroa Bai parlamen-  
tu-taldeak osoko zuzenketa hau aurkeztu dio Zen-  
bait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk  
hartzeari buruzko 2013ko ekitaldirako Foru Lege  
proiektuari, Nafarroako Gobernuari itzul dakion.

## 2. ZUZENKETA

### MANU AYERDI OLAIZOLA ETA PATXI LEUZA GARCÍA

#### FORU PARLAMENTARI JAUNEK AURKEZTUA

Osoko zuzenketa, Zenbait zerga aldatu eta  
beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko  
2013ko ekitaldirako Foru Lege proiektuari aurkez-  
tua, lege proiektu hori Gobernuari itzul dakion pro-  
posatzen duena.

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri  
batzuk hartzeari buruzko 2013ko ekitaldirako Foru

Lege proiektuak xeheki jasotzen du indarrean  
dugun legedi fiskalean zer aldaketa zehatz propo-  
satzen dizkigun UPNk. Horiek guztiek, Gobernu-  
aren ustez, Aurrekontuen Proiektuan jasotako diru-  
bilketaren kalkulua ontzat jotzen dute.

Aurrekontuen Lege Proiektuari aurkeztu diogun  
osoko zuzenketa aipatu dugunez, ez gatoz bat  
Gobernuaren planteamenduaren filosofiarekin eta  
proposamen nagusiekin. Erreforma fiskalerako  
gure proposamena erregistratu dugu, eta, bertan,  
gure ustez beharrezkoak diren neurriak planteatu  
ditugu. Uste dugu, zinez, hain basa eta sakona  
den krisi egoera honetan, posizio hobean dauden  
herritarrek – daukatenarengatik eta irabazten dute-  
narengatik–, UPNk defendatzen duena baino  
laguntza handiagoa eman behar luketela susper-  
tze ekonomikoaren sustatzeari eta enplegua sor-  
tzeari dagokionez, bai eta funtsezkoak diren oina-  
rriko zerbitzuak bermatzeari dagokionez ere.  
UPNren proposamenari, gure ustez, elkartasun-  
dosi handi bat falta zaio.

Elkartasun defizit hori bereziki da nabarmena  
UPNk PFEZaren eta ondarearen gaineko zergaren  
arloan proposatzen dizkigun arauetan. Gure iritziz,  
bai pertsonak sortzen dituzten errenten tributazio-  
ari dagokionez (PFEZ), bai eta batek duenaren  
gaineko tributazioari dagokionez ere (ondarearen  
gaineko zerga), ahalegin gehigarri bat eska daite-  
ke eta eskatu behar da, bide emanen duena elkar-  
tasunaren maila eta aurrekontuen birbanaketaren  
maila oraindik ere zabalagoak izateko, batetik fun-  
tsezko zerbitzuak ziurtatzeari dagokionez, baina,  
bereziki, enplegua bultzatzeari dagokionez.

PFEZaren arloan, zergaren erregresibotasun-  
aztarnak desagerrarazteko garaia da; horretarako,  
klase baxuak kaltetuko ez dituzten neurri ausartak  
hartu behar dira, eta gainerakoei izaera progresibo  
argiko ahaleginak exijitu behar zaizkie. Gutxieneko  
pertsonala eraldatzea proposatu dugu (iruditzen  
zaigu hori dela PFEZean gaur egun dagoen onura  
fiskal handiena), halako moduz non, aurrerantze-  
an, ez dadin izan zerga-oinarrian egiten den  
murrizketa bat, baizik eta kuotan egin beharreko  
kenkari bat. Gutxieneko pertsonala, konfiguratu  
dagoen moduan, progresiboa ez izateaz gain,  
justu kontrakoa da: gehien irabazten dutenei egiten  
die mesede. Gehien irabazten dutenek gutxi-  
neko pertsonalaren % 49 aurrezten dute gaur  
egun, eta gutxien irabazten dutenek, berriz, kon-  
tzeptu beragatik, % 22. Guk uste dugu horrek ezin  
duela horrela jarraitu.

Bestalde, bigarren onura fiskal handiena alda-  
tzea ere planteatu dugu, hau da, lan-etekinengati-  
ko kenkariarena; nahi duguna da progresiboagoa  
izatea.

Tarifa ere aldi baterako berrikustea planteatu dugu, bai eta beste zenbait neurri gehigarri ere. UPNk, ordea, nahiago izan du etxebizitzagatiko kenkarian zentratu (hirugarren onura fiskal garrantzitsuena), eta gainerakoeidoi-doi baizik ez die erreparatu. Iruditzen zaigu PFEZaren arloko bere apustua motz gelditzen dela; ez dela aski, argi eta garbi.

Ondarearen gainera zergari dagokionez, elkartasun-defizita askoz ere nabarmenagoa da kualitatiboki, UPNk ez baitu inongo jarduketarik proposatzen. Gaur egungo araubidea nahikoa iruditzen zaio. Bere ustez, iragan ezin daitekeen marra gorri bat da hori.

Gure ikuspuntua erabat bestelakoa da. Gure ustez, dugun krisi egoera ikusita eta jabeturik zer zailtasun dramatiko bizitzen ari diren gure herri-ede asko, beharrekoa da aldi baterako ahalegin gehigarri bat eskatzea gehien dutenei, eta, bereziki, ondare handienei.

Horregatik, salbuetsitako gutxienekoak doitzeaz gain, iruditzen zaigu funtsezkoa dela aldi baterako tarifa gehigarri bat arautzea ondare handienak dituztenentzat –gure proposamenean, 2,5 milioi eurotik gorakoak dituztenentzat–, indarrean egonen dena 2012, 2013 eta 2014ko ekitaldietan gainera aitortzenarako.

Bat etor bagaitezke ere UPNren Gobernuak proposatutako neurri zehazetako batzuekin, ikusiz erabateko adostasun-falta daukagula PFEZaren arloko araubidean (funtsezko elementuetan) eta ondarearen gainera zergan, onartezintzat jotzen dugu proposatutako planteamendua. Nafarroako gizarteak egoera ezin larriagoa bizi du, eta bereziki pertsonarik kaltetuenek behar dutena da gainerakoonelkartasun-maila handiagoa izan dadila, UPNren proposamenak planteatzen duena baino.

Arrazoi horiengatik guztiengatik, atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdik eta Patxi Leuzak osoko zuzenketa hau aurkeztu diogu Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartze-ari buruzko 2013ko ekitaldirako Foru Lege proiektuari, eta Nafarroako Gobernuari itzul dakion eskatzen dugu.

### **3. ZUZENKETA**

#### **IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketa. Proiektua Nafarroako Gobernuari itzul dakion proposatzen da.

Zioak: Konstituzioaren 31. artikulua honakoa ezartzen du:

“1. Denek lagunduko dute gastu publikoei aurre egiten, nork bere ekonomia-ahalmenaren arabera, tributu-sistema justu baten bitartez; berdintasun eta progresibotasun printzipioetan oinarrituko da sistema hori, eta ezein kasutan ez da iritsiko konfiskatzeraino.”

Gaur, Nafarroan eta Estatu osoan, Konstituzioaren agindu hori letra hila da.

Denek ez dute laguntzen gastu publikoei aurre egiten, eta, aldi berean, sistema fiskalak sistematikoki urratzen ditu berdintasun eta progresibotasun printzipioak.

Nafarroako Gobernuak ez dio oraindik heldu Nafarroak behar duen erreforma fiskal sakon eta progresiboari.

Ukitu gabe dauzka oraindik errenta altuen eta kapitalekoen finantzaketa, ondare handiak edo enpresen zerga-tasak. Gainera, ez dago inongo jarduketa berezi eta ausartik Nafarroan dagoen ezkutuko ekonomiaren poltsa handiari aurka egiteko.

Krisiak zenbait behar nabarmendu ditu, eta Nafarroako Gobernuak aurkeztutako foru lege proiektuak ez du diru-sarreren politika bat proposatzen, behar horiei egokitu. Agerian gelditzen da, beste behin ere, defizita kontrolatzeko Nafarroako Gobernuak proposatzen duen benetako bide bakarra dela gastua eta inbertsio publikoa modu drastikoan murriztea.

Nafarroan, Estatuan bezala, langileak eta kontsumitzaileak dira zergarik gehien-gehienak ordaintzen dituztenak. Enpresen etekinek, kapitaleko errentek eta ondare handiek ia batere zergarik ez dute ordaintzen.

Horri guztiari ezkutuko ekonomia eta iruzur fiskal handia gehituz gero, bai eta paradisu fiskalekiko tolerantzia juridiko eta politikoa ere, ondorio bakarra atera daiteke: tributu kontuetan, Konstituzioa letra hila da.

Horrenbestez, Nafarroak, eta Estatuak ere bai, erreforma fiskal sakon eta asmo handikoa behar du, honako helburuak lortzera zuzendua:

– Berdintasun eta progresibotasun printzipioak betetzen direla ziurtatzea.

– Politika publikoen finantziazioa ziurtatzea, estatu soziala osatzen duten zerbitzu publikoen finantziazioa bermatuz, eta, oso bereziki, osasuna, hezkuntza eta mendetasuna.

– Europar Batasuneko batez besteko diru-bilketa fiskalaren mailara iristea. Gaur egun, batez besteko horretatik oso urrun gaude.

Helburu horietatik bakarra ere ez du jasotzen Nafarroako Gobernuak proposatutako neurri fiskalen proiektuak.

Gobernuaren foru lege proiektuak ez du zuzentzen sistema fiskalaren ekitate- eta progresibotasun-gabeziak bakar bat ere.

Lan-errentek kapital-errentek baino gehiago ordaintzen dute. Lan eginez lortutako euro batengatik askoz gehiago ordaindu behar da akzio batzuk salduta lortutako euro batengatik baino.

Dirutza handiak dituztenek eta enpresa handiek lege-mekanismoak dituzte zergeri ihes egiteko.

Alderdi horietako bakar bati ere ez zaio heltzen Gobernuaren foru lege proiektuan.

Horregatik guztiagatik, Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak osoko zuzenketa hau aurkeztu dio Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuari, eta Gobernuari itzul dakion eskatzen du.

#### 4. ZUZENKETA

##### BILDU NAFARROA

##### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko 2013ko ekitaldirako Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketa. Proiektua gobernuari itzul dakion proposatzen da.

Zioak: UPNren ondoz ondoko gobernuen emaitza objektiboen datuek erakusten dute erreforma fiskal sakona eta alternatiboa dagoela egin beharra UPNren gobernuen erreforma fiskal hutsegina- ren orde. Hala ere, Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko Foru Lege proiektuak planteatzen dituen neurri fiskalek orain arteko parametroen ildo berberari eusten diote, eta parametrook, frogatu denez, ez dira gauza izan aberastasuna modu justuan birbanatzeko eta, halaber, garantizatzeko justizia soziala ziurtatzen duten oinarrizko zerbitzu publikoen finantzaketa.

Nafarroako Gobernuak, izan ere, eskuinaren (UPN-PP) printzipio ideologikoak euskarri dituen lege proiektu hau aurkeztu du, jakitun diseinatua dagoela aurrekontu-politika arduragabe bati bide emateko, eta posizio horrek gizartearen gutxiengoa- ren babesa duela. Hain zuzen ere, lege proiektu hau eta Aurrekontuei buruzko Foru Lege proiektua politika ekonomiko jakin baten adierazgarri dira; hain zuzen ere, gizarte-eskubideak eta enplegua

PPren eta Espainiako presidente Rajoyren interesen menpe eta Europako ildo erreazionarioenen menpe jartzen dituen politika baten adierazgarri.

Izan ere, iaz onetsitako tributu-neurrien proiektuarekin alderatuta, Gobernuak planteatzen dituen neurriak hutsaren hurrengoak dira. Gobernuak erabaki duena da indarrean diren egitura fiskalak aldatzea eta egokitzea Alderdi Popularraren Espainiako Gobernuaren aurrekontu-proiektuko irizpide- etara, eta ez die heldu nahi izan une honek eskatzen dituen hausnarketei eta aldaketa sakonei.

Uneotan, beste urte batzuetan baino are urgentzia handiagoarekin seguruenik, behar ditugun proposamenek bideratuak egon behar dute eragina izatera errentarik altuenetan, soldatarenak ez diren errentetan eta ondarearen gaineko zergan (erreforman, aipatu ere ez da egiten), eta presio handiagoa jarri behar da (nominala eta benetakoa) sozietateen gaineko zergan.

Baina ez; UPNren gobernuak, lege proiektu honetan, uko egiten dio behar adina baliabide publiko sorrarazteari gero horiekin modu efiziente- an eragiteko ekonomian, dinamismo ekonomikoa sustatuz eta etorkizuneko diru-sarrerak ziurtatuz, beharrezkoak izanen baitira UPNren diru-xahuketa arduragabeko politikak eragindako zor berealdikoa kitatzeko. Eskuinak, lege proiektu honekin, erakusten du zer sentsibilitate gutxi duen eta nola ez duen lehentasuntzat jotzen presio fiskal orekatua- go bat ezartzea, halako moduz non krisitik ateratzeko egin beharreko ahaleginak modu bidezkoa- go eta efizienteago batean banatuko lirartekeen.

Eta horrek guztiak gero eta gehiago urruntzen gaitu Europako herrialde aurreratuenen politika fis- kaletatik. Presio fiskala, izan ere, Europako batez bestekoarekin alderatuta, dezentez ere txikiagoa da (BPGaren 8 puntu txikiagoa, gutxi gorabehera), eta Nafarroa, horrela, Europar Batasuneko azke- neko lekuetan dago honi dagokionez. UPNren eki- mena, ordea, Madrileko PPK diseinatzen dituen politika fiskalak kopiatzera eta haiei men egitera mugatzen da; eta, era horretan, gainera, uko egi- ten zaio gure arau fiskalak zehazteko aukerari, hau da, arauok gure ekonomiaren interesen eta gure herritarren borondatearen antolatze- ko aukerari.

Beharrezkoa da Nafarroak baliabide aski izan ditzan bere herritarren eskakizunak asetzeko eta merkatuen interesei soilik erantzuten dieten aurre- kontu-egonkortasuneko helburuen aurrean ez makurtzeko. Horretarako, salatu egin behar da gure sistemako zer puntutan ez dagoen ekitate- rik, eta erreforma fiskalaren ardatza puntuotan zentra- tu.

Lanaren errenten gaineko zerga-politikak 80ko hamarkadatik hona izan duen joera, argi eta garbi, erregresiboa izan da: etengabe egin dute behera errenta-tarteen kopuruak eta gehieneko kotizazio-mugak (errenta-tarte altuenei PFEZean ezartzen zitzaien gehieneko zerga-tasa % 66koa zen 1979an, eta % 42koa da 2008an). Agerikoa da Nafarroako zerga-sistemaren tasun erregresiboa.

Bestalde, Nafarroako zerga-sistemak duen beste problemetako bat da gero eta diru gutxiago biltzen dela sozietateen gaineko zergarekin. Haren zerga-oinarriaren jaitsierak, zeina krisi ekonomiko-ari egozten baitzaio, ez du erabat azaltzen bildutako diru-kopurua erori izana. Erantzukizuna zergatasak jaistearena da, bai eta hobari, kenkari eta arinketen mordoiloarena ere; izan ere, enpresek, horri esker, zerga-tasa nominaletatik atera dezakete beren etekina, arauak ezartzen duen zergatasatik oso urrun dagoen zerga-tasa erreal bat sortuz.

Beharrezkoa da, orobat, ondarearen gaineko zerga erreformatzea, duen birbanatzeko eginkizuna bete ahal izan dezan, salbuetsitako gutxienekoa murriztuz, ohiko etxebizitzaren balioa –indarreko zenbatekoarengatik– kanpo gelditu ondoren. Zerga horren bidezko diru-bilketaren igoerak diru-sarrerak igotzeko modua ekarri behar dio Nafarroako Ogasunari, halako moduan non politika publikoak finantzatu ahal izanen baitira, Foru Administrazioak zerbitzuak behar bezala ematea ziurtatuko dutenak.

Baina, UPNren ondoz ondoko gobernuen politika fiskalen porrota ikusarazteko, nahikoa da datuei gainetik erreparatzea. Lehenbiziko bederatzi hilabeteetan zergen bidez bildutakoak 1.963,85 milioi euro likido egiten du; hain zuzen ere, 927,2 milioi euro zuzeneko tributuen bidezko diru-sarreretan, eta 1.016,67 milioi zeharkako zergetan. 2012ko irailera arte guztira bildutako diru-kopuru likidoa % 10,54 txikiagoa da 2011ko epe berean bildutakoa baino. Sozietateen gaineko zergaren bidez aurtengo lehenbiziko bederatzi hilabeteetan bildutakoa % 16,64 gutxiago da 2011ko irailera arte bildutakoa baino.

Beraz, begi-bistakoa da arduragabekeria dela horrelako eredu fiskal kontinuista batekin jarraitzea, izan duen porrota erabat frogatuta gelditu baita. Eredu fiskal hori oinarrituta zegoen hazkunde ekonomiko faltsu eta edukirik gabeko batean. Hazkunde horren euskarria eraikuntza eta higiezin burbuila izan zen, eta kinkan utzi du Nafarroa sozial baten bideragarritasuna, zorpetze-maila jasanezina baitugu orain.

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldearen ustez, premiazkoa da politika fiskalak birbideratzea, eta deriba negatibo honi buelta ematea, objektiboki egoera beltz eta gordin batera eraman baikaitu. Ondorioz, urgentziako ekimen fiskalen alde egiten dugu, SICAVen (balore higigarrietako inbertisio-sozietateak, kapital aldakorrekoak)tributazio-ereduen pribilegioekin amaituko dutenak, lan- eta kapital-errenten tributazioaren homogeneotasunera hurbiltzen lagunduko dutenak, oso aberatsak direnentzako zerga-ereduak definituko dituztenak, enpresentzako gaurko kenkari-ereduak sorrarazten dituen bidegabekeria fiskaleko problemak konponduko dituztenak... Horiek guztiak ez dira agertzen UPNren gutxiengoko Gobernuaren aurrekontu proiektu honetan.

UPNren Gobernuak porrot- eta ezgaitasun-erakustaldiak egiten ari da egunean-egunean. UPNren Gobernuak bere lege proiektua igortzerako, Erregistroan aurkeztuak zituzten zenbait aste lehenago beren proposamen fiskalak Bildu-Nafarroak, PSNk, Na-Baik, I-Ek eta Geroa Baik.UPNren Gobernuak, zeinak nahiago izan baitzuen Moderna Fundazioaren barruan “teknikari talde” bati agindu aldaketa fiskalerako bere proposamena presta zezan (oposizioko talde guztiek kritikatu dute hori): ezgaitasunaren beste adierazgarri bat. Gainera, UPNren Gobernuak aurkeztutako Tributu Neurriei buruzko Foru Lege proiektuaren osoko zuzenketak eztabaidatuko dira eratua dagoelarik Parlamentuan, dagoeneko, oposizioko parlamentu-taldeen proposamenak aztertzeke lantalde bat.

Hala ere, modurik nabarmen eta gordinenean adierazten duena Gobernuak ezgaia eta friboloa dela, zorrotasun ekonomiko txikienik ere gabekoa, berea izanik, jakina, Nafarroan aportatzen ditugun baliabideen kudeaketaren ardura, agian, zera da: UPNren Gobernuak 2013rako gastu-muga bat ezarri izana (hala egin zuen aurtengo abuztuaren 29an), zehaztu ere gabe edukirik gastu-politika hori justifikatuko lukeen politika fiskal bat. Esperpentikoa da Nafarroako Gobernuak gastu-muga bat ezartzea 2013rako (horrek izanen duen eraginarekin gizarte-eskubideetan eta ekonomiaren depresioan) eta bere proposamen fiskala Parlamentuan bi hilabete pasatxo geroago aurkeztea; horrekin, bere ezgaitasuna erakusten du, eta erabakita duela Nafarroaren ekimen ekonomiko oro PPK eta Madrilek ematen dituzten jarraibideetara makurtuko direla.

Edonola ere, berdintsu kalifika ditzakegu UPNren Nafarroako Gobernuak iruzur fiskalaren aurka borrokarako planteatzen dituen neurri urriak ere (funtsean, beste lege proiektu batean daude zehaztuta). Gobernuaren ekinbide faltaren eta

pasibokeriaren aurrean, oposizioaren ekimenez Parlamentuak erabakia hartu zuen, gehiengoz, neurriak bultzatzea aurreratzeko, erabakitazunez, iruzur fiskalaren aurkako pertsekuzioan eta ezkutuko ekonomiaren desagerrarazpenean. Beste ekimen batzuk ere izan dira. Esate baterako, parlamentu-talde honek erregistratu, eta Parlamentuko gehiengoak eztabaidatu eta onetsi zuen ekimena bezalakoak, iruzurraren aurkako plan berri bat prestatzera bideratua, eta planteatzen zuena baliabideetan orain halako bi izatea eta Nafarroako Ogasunak orain dituen ikuskatzaile kopuruaren halako bi ere izatea. Bada, Nafarroako Gobernuak, beste behin ere, Parlamentuko gehiengoari entzungor egin, eta neurri erabat kontinuitateak planteatu ditu, egoerak eskatzen duen jauzi kuantitatiboa eta kualitatiboa egiteko asmorik batera gabekoak.

Izan ere, eskuinak, egunez egun, bere ekinbidean eta ekinbiderik ezean, bere axolagabekeria eta zorrotasun ekonomikorik ezean, bere printzipio neoliberalak agertzen ditu; hau da, ez du nahi administrazio publikoak izatea herritar guztien gizarte-eskubideak bermatuko dituztenak, eta eginkizun hori ekimen pribatuko karitatearen esku uzten dute. Horregatik, herritarrak zur eta lur daude, eta suminduta, ikusirik zer erabaki hartzen ari den UPNren Gobernuak, zeinak batera beldurrik gabe murrizten baitu sakonki gizarte-babes oro, beldurrik gabe ematen baitie aizkorakada osasun eta hezkuntza publikoei, baina epel eta etorkor jokatzeko baitu iruzurraren aurkako tresnak sortzean; tresnak, hain zuzen, iruzur horri eragozteko

zerbitzu publikoen finantzaketarako behar diren baliabideak gutxitzea.

Azken baten, Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak, UPNren Nafarroako Gobernuak aurkeztutako lege proiektua zorrozki aztertu ondoren, uste du zuzenketen bidez inola ere ez dagoela proiektua konpontzerik. Nafarroa gaur egungo zorpetze- eta kolapso-egoerara eraman duten politika fiskalak ditu oinarri proiektuak, eta ez die konponbide errealistarik eskaintzen gure ekonomiaren eta gure gizarteak aurre egin beharreko desfioei. UPNk betikoa planteatu du beste behin ere, eta orain behar dena da politika fiskal alternatibo bat, ziurtatzeko gizarte-eskubideak gauzatuko direla eta modua izanen dela kalitateko zerbitzu publiko batzuk finantzatzeko.

Horregatik guztiagatik, Bildu-Nafarroa parlamentu-taldearen ustez, UPNk aurkeztutako Tributu Neurri buruzko Foru Lege proiektuak oraingo egitura fiskal hutseginarekin defizit berak ditu, eta, horregatik, uste dugu Gobernuari itzuli behar zaio, Nafarroako Parlamentua oposizioak aurkeztutako proposamenen azterketan zentra dadin eta, oinarri hartuta elkartasunaren, progresismoaren eta ezkerren printzipioak, bidera ditzen gure aurrekontu-politikak behar dituen konponbideak eta zerbitzu publikoen finantzaketa.

Hori guztia horrela, eta azaldutako nahiak gogoan, Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak osoko zuzenketa hau aurkeztu dio Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko Foru Lege proiektuari, Gobernuari itzul dakion.

